



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## ORDAINDU BEHARREKO BIZKAIKO FORU ERREPIDEETAKO EGUNGO TRAFIKOA OSASUN-KRISIAREN AURRETIK ZEGOENA BAINO “% 13,3” TXIKIAGO DA

- Aldundiak errepideen foru sareko bidesariak eguneratzen dituan foru-dekretua eta Avanzada estaltzeko “behin-behineko” proiektua jakinarazo ditu Bizkaiko Batzar Nagusietan.
- Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko foru diputatuak, Zaldibarko zaborteja jaustearen ondorioz AP-8an inbertidutako diruaren berreskuratzea dala eta be egin dau agerraldia.

*(Bilbon, 20212ko urtarrilaren 13an).* Imanol Pradales Azpiegituretako eta Lurralde Garapeneko foru diputatuak, Bizkaiko errepide-sareko zenbait tarteren bidesarien zenbatekoak eguneratzen dituan Foru Dekretua aurkeztu dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietan. AP-8aren, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren eta Artxandako tunelen prezio eguneratuak jasoten dituan eta urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagon prezioen igoereak, barritasun moduan, % 25eko deskontua aurreikusten dau akreditauta dagozan “ibilgailu arin elektriko puruentzako”, betiere ordaintzeko OBE erabilten badabe. Doikuntzea “hilerro eta hilebetea amaituta” ordainduko da. Egin daiteken ahalik eta deskonturik onena da “gure ingurunean dagozan deskontu eskuzabalenak kontuan hartuta”.

2022an, Bidesaria diru-laguntzen programari atxikitako erabiltzaileek (22.313 persona izan ziren igaz) gehienez 34,55 euro ordainduko ditue hilean aitaturako hiru errepide horreetan egindako ibilbideengaitik. Pradalesek, pandemia garaian, erabiltzaile horreen gastuak “arintzeko” “aurrekontu arloko ahalegina” nabarmendu dau; izan be, gaur egungo trafikoa osasun krisiaren aurretik (2019an) egoana baino “% 13,3” txikiago da.

Murrizketa horrek zuzenean eragiten deutse bidesarien bidezko diru-sarrerei, aurrekontuakaz batera, errepideko azpiegiturek eta horreen mantentze-lanak finantzetako bide bietako bat dalako. “2019ko baliabideak lortzetik urrun gagoz”, onartu dau. Hau da, Aldundiak “baliabide gitxiago ditu konpromisoei aurre egiteko”. 2017ko urtarrilaren 1ean gastuaren mugea indarrean sartu zanetik, Aldundiak “34,6 milioi euro” inbertitu ditu diru-laguntzetan. Batez beste, Bidesaria sistemari atxikitako gidari bakoxak “47,45 euro” aurreztu ditu hilean.

Oposizinoak gogor kritikau dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko batzordean gaur goizean aurkeztutako Dekretuaren eukia. Talde Berezia-



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PP Bizkaiak deitoratu egin dau “kasu batzuetan” tarifen igoerea “% 5koa” izatea, eta hori bizitzaren kostuaren beste igoera batzuei gehitzea, horreen artean, energiari eta urari. Elkarrekin Bizkaiak ibilgailu elektrikoentzako deskontuan jarri dau arretea, hidrogenozkoak, hibridoak edo hibrido ahokagarriak kanpoan itxita. Beste alde batetik, EH Bilduk deitoratu egin dau Durangaldea eta Lea Artibai moduko eskualde batzuek Bizkaiko errepide-azpiegituren kostua euren gain hartzen jarraitzea, horreek diralako foru-bidesariak gehien erabilten dituenak.

Foru Gobernuari eusten deutesien taldeek igoerea babestu dabe, izan be, “beharrezkoa” da errepideen eraikuntza eta mantenua finantzetako eta ingurumen eta segurtasun arloko hobekuntzak ezarteko.

#### AVANZADAKO PROIEKTUAREN JENTE AURREKO ERAKUSKETEAREN URTARRILAREN 18RA ARTE

Talde Berezia-PP Bizkaiak eskatuta, Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako diputatuak ezagutzera emon dau, ganera, Gobernu Kontsejuak, BI-637 errepidean, Leioan (Avanzadan), aire zabaleko egungo lubakia kentzeko zemendian onartu eban behin-behineko proiektua. Proiektua “urtarrilaren 18ra arte” egongo da jente aurrean, eta “urte amaieran” lizitauko da, “62,5 milioi euro ingururen truke”. Urtenbide “errealistea” eta “bideragarria” planteetan dau, “114.000 ibilgailuren” trafikoari eragin barik, 4.132 metro karratu irabazteko, dagozan lubakiak estalduta eta urteerako aho bietan pantaila akustikoak jarrita.

Pradalesen berbetan, urtenbidea beste aukera batzuk baztertu ostean aztertu da, horreen artean, Bilborako noranzkoan ahoan azalera handiagoa estaltzea. Obra hori egin ezker, “Uribe Kostako trafiko guztia kolapsau egingo litzateke”. Udalagaz eta biztanleakaz “kontrastata” dagon eta oraindino be aldaketak jasan daikezan aurkeztutako konponbideak, Leioako bizilagunentzako oinezkoentzako espazio publikoa irabazi, kutsadura akustikoa murriztu eta bide-segurtasuna areagotu gura dau, hori guztia, lana egiten den bitartean, milaka personeren eguneroko mobikortasuna bermatuta.

Gauean “55 dezibelio baino gehiago” jasaten dituen “2.900” bizilagun horreen inguruan egin dau berba Pradalesek. Persona horreen “% 82k” jasaten dauen kutsadura akustikoa nabarmen murriztuko da, atsedena bermatzen dauen muga horretatik behera ixteko. Persona horreen bizi-kalitatea hobetzeko “aurrerapausu handia” da, baina ez da konponbide “osoa”, arazo horregaz jarraituko daben beste 500 bizilagun geratuko diralako, onartu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## ERREKLAMAZINO EKONOMIKOAK ZALDIBARKO HONDAMENDIARENGAITIK

Pradalesek, Zaldibarko zabortegia jausi ostean AP-8 autobidea konpontzeko Aldundiak inbertitutako “3 milioi euro baino gehiago” berreskuratzeari buruz EH Bilduk egindako ahozko erantzun-eske bati be erantzun deutso batzordean.

Diputatuaren berbetan, Aldundiak “azkar” jokatu eban, 2020ko zezeilean, Interbiaken bidez, auzian akusazino partikular moduan aurkeztu zanean, gaur egun soziedade hori “aktore zibil” moduan agertzen dan arren. Prozesua “motela” da, eta epaiketarako epeak luzatu egin dira pandemiaren ondorioz; hori dala eta, Durangoko epaitegiak instrukzino fasea luzatu behar izan dau, aurtengo bagilaren 1era arte. Pradalesek gogorarazo dauenez, zabortegiaren ardura dauen enpresak “5 milioi euro jarri ditu fidantza eta abal moduan” eskari ekonomikoei erantzuteko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## EL TRÁFICO ACTUAL DE LAS VÍAS DE PEAJE FORALES EN BIZKAIA ESTÁ UN “13,3%” POR DEBAJO DEL EXISTENTE ANTES DE LA CRISIS SANITARIA

- La Diputación da cuenta en las Juntas Generales de Bizkaia del Decreto foral por el que se actualizan los peajes de la red foral de carreteras y del proyecto “provisional” de cubrimiento de La Avanzada.
- El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, comparece también por la recuperación del dinero invertido en la AP-8 por el derrumbe del vertedero de Zaldibar.

(Bilbao, a 13 de enero de 2022). El Decreto Foral por el que se actualizan las cuantías de peaje sobre determinados tramos de la red viaria de Bizkaia ha sido presentado esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia. La subida de precios materializada desde el pasado 1 de enero, que contempla los precios actualizados de la AP-8, la Variante Sur Metropolitana y los Túneles de Artxanda, contempla, como novedad, la incorporación de un descuento del 25% para “vehículos ligeros eléctricos puros” que estén acreditados a tal efecto y siempre que utilicen el OBE como medio de pago, según ha informado el diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales. El ajuste se abonará “con carácter mensual y a mes vencido”. Es el mejor descuento posible “teniendo en cuenta los descuentos más generosos que existen en nuestro entorno”.

En 2022, los usuarios y usuarias acogidas al programa de subvenciones Bidesaria, que fueron 22.313 personas el pasado año, pagarán, como máximo, 34,55 euros al mes por los recorridos realizados en las tres vías mencionadas. Pradales ha puesto en valor el “esfuerzo presupuestario” que esto supone en plena pandemia para “mitigar” los gastos de estos usuarios, cuando el tráfico actual se encuentra un “13,3%” por debajo del existente antes de la crisis sanitaria, comparándolo con cifras de 2019.

Esta reducción repercute directamente en los ingresos por peaje, una de las dos vías, junto a los presupuestos, para financiar las infraestructuras viarias y su mantenimiento. “Estamos lejos de obtener los recursos de 2019”, ha admitido. O sea, la Diputación tiene “menos recursos para hacer frente a los compromisos”. Desde el 1 de enero de 2017, cuando entró en vigor el límite de gasto, la Diputación ha invertido “34,6 millones de euros” en subvenciones. De media, cada conductor adherido al sistema Bidesaria se ha ahorrado “47,45 euros” mensuales.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La oposición ha criticado el contenido del Decreto presentado esta mañana en la comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia. El grupo Mixto-PP Bizkaia ha lamentado que "en algunos casos" la subida de tarifas sea del "5%" y que ésta se sume a otras subidas del coste de la vida, como la energía o el agua. Elkarrekin Bizkaia ha puesto el foco en el descuento para vehículos eléctricos, dejando fuera a los de hidrógeno, híbridos o híbridos enchufables. Por su parte, EH Bildu ha lamentado que algunas comarcas como el Duranguesado y Lea Artibai sigan asumiendo el coste de las infraestructuras viarias de Bizkaia puesto que son los que más pagan los peajes forales.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral han respaldado la subida, ya que es "necesaria" para financiar la construcción y mantenimiento de carreteras y para establecer mejoras de diverso tipo, ya sean medioambientales o referentes a la seguridad de las mismas.

## EXPOSICIÓN PÚBLICA DEL PROYECTO DE LA AVANZADA, HASTA EL 18 DE ENERO

A petición del grupo Mixto-PP Bizkaia, el diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, ha dado a conocer también el proyecto provisional aprobado por el Consejo de Gobierno en noviembre para actuar sobre la BI-637 a su paso por Leioa (La Avanzada), para eliminar la actual trinchera a cielo abierta. El proyecto, que estará en fase de información pública "hasta el 18 de enero", se licitará "a finales de año" por un importe aproximado de "62,5 millones de euros". El mismo, plantea una solución "realista" y "viable", sin afectar al tráfico existente de "114.000 vehículos", para ganar 4.132 metros cuadrados de superficie peatonal, mediante la cubierta de las trincheras existentes y la colocación de pantallas acústicas en las dos bocas de salida.

La solución ha sido estudiada después de descartar otras alternativas, como la de cubrir una mayor superficie en la boca en dirección a Bilbao, obra que de ejecutarse, "colapsaría todo el tráfico de Uribe Kosta", según Pradales. La solución aportada, "contrastada" con el ayuntamiento y el vecindario, y que puede todavía sufrir modificaciones en base a las alegaciones que sean aceptadas, trata de ganar espacio público peatonal para los vecinos y vecinas de Leioa, reducir la contaminación acústica y aumentar la seguridad viaria, todo ello garantizando, mientras se ejecuta el proyecto, la movilidad diaria de miles de personas.

Pradales se ha referido a esos "2.900" vecinos y vecinas que soportan "más de 55 decibelios" de ruido por la noche. El "82%" de estas personas verán reducida "muy notablemente" la contaminación acústica para dejarla por debajo de este límite que garantiza el descanso. Es un "paso de gigante" para mejorar la calidad de vida de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

estas personas, se bien ha admitido que no es una solución “completa”, ya que quedarán otros 500 vecinos y vecinas que mantendrán esta problemática.

## RECLAMACIONES ECONÓMICAS POR EL DESASTRE DE ZALDIBAR

Pradales ha respondido también en la comisión a una pregunta oral de EH Bildu en relación a la recuperación de los “más de 3 millones de euros” invertidos por la Diputación en la reparación de la AP-8 tras el derrumbe del vertedero de Zaldibar.

Según el responsable foral, la Diputación actuó “con celeridad” al personarse, por medio de Interbiak, en febrero de 2020, en la causa abierta en un juzgado de Durango como acusación particular, aunque actualmente dicha sociedad aparece como “actor civil”. El proceso es “lento” y los plazos para que comience el juicio se han alargado por la pandemia, lo que ha obligado al juzgado a ampliar la fase de instrucción “hasta el 1 de junio de 2022”. Pradales ha recordado que la empresa responsable del vertedero ha depositado “5 millones de euros como fianza y avales” para responder a las demandas económicas.